

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ASPARRENEKO UDALA

Laguntza deialdia, kontzejuek energia eraginkortasunerako jarduerak egiteko eta energia berriztagarriak erabiltzeko

Asparreneko udalbatzak, 2018ko azaroaren 6an egindako ohiko bilkuran, onartu zituen kontzejuek energia eraginkortasunerako jarduerak egiteko eta energia berriztagarriak erabiltzeko laguntzen deialdia arautzen duten oinarriak.

Bat etorri Dirulaguntzen Lege Orokorrek 9. artikuluan xedatutakoarekin, argitaratu egiten dira oinarri horiek, denek jakin dezaten eta interesdunek eskaerak aurkez ditzaten.

Laguntza deialdia, kontzejuek energia eraginkortasunerako jarduerak egiteko eta energia berriztagarriak erabiltzeko

1. Deialdiaren xedea

Energiaren azken erabilera eraginkortasuna sustatzeko eta energia berriztagarrien erabilera sustatzeko, Asparreneko kontzejuetarako laguntza deialdia egiten da, aurrezteko neurriak eta energia eraginkortasunerako neurriak, edo energia berriztagarrien erabilera dakarten jarduerak egiteko.

2. Onuradunak eta betekizunak

Laguntza programa honen deialdiaren xede diren dirulaguntzak Asparreneko kontzejuek jaso ahal izango dituzte, baldintza hauek betetzen badituzte:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea.
- Udalak eskatutako informazio edo dokumentazioa bidali gabe ez edukitzea, edozein gai dela ere.

3. Aurrekontu zuzkidura

Laguntza programa honen zuzkidura ekonomikoa hogeita mila euro (20.000,00 euro) izango da, Asparreneko Udalaren 2018rako aurrekontuan horretarako ezarri den kredituaren arabera.

4. Eskabideak aurkezteko epea

Laguntza programa honetarako eskabideak aurkezteko epea oinarri hauek ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da, baina ez dira berriz aurkeztu beharko, argitaratu baino lehen aurkeztutako eskabideak, eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Eskabideak aurkezteko epea 2018ko abenduaren 21ean amaituko da.

5. Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Deialdi honen barruan diruz lagunduko diren jarduerak honako hauek izango dira:

- Etxeko ur beroa klimatizatzeko edo sortzeko instalazioak, energia elektrikoaren kontsumoaren murrizketa badakarte, edo berogailu, hozteko sistema edo etxeko ur beroa sortzeko instalazioen kasuan, ohiko erregaien murrizketa badakarte.
- Kogenerazio instalazioak, horrela kogenerazio edo trigenerazio instalazioak ezartzea lortzen bada.

– Barruko argiztapen instalazioak, udal eraikinen barruko argiztapen instalazioetan energia elektrikoaren kontsumoa murrizten badute; larrialdietako argiztapen edo segurtasun argiztapen instalazioetako hobekuntzak izan ezik.

– Eguzki energia termikoaren instalazioak, fluidoak eguzki izpien bilketaren bidez berotzeko. Salbuetsita daude kanpoko argiteria publikoaren inguruan egindako jarduera guztiak.

6. Diruz lagundu daitezkeen kostuak

Diruz lagundu daitezkeen kostua izango da aurreikusitako helburu energetikoak lortzeko gauzatzea ezinbestekoa den inbertsioa. Diruz lagundu daitezkeen kostuen barruan daude aktibo finkoetako (instalazioak, ekipoak, proiektuaren gastuak, muntaia eta abian jartzea) inbertsioak, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien aprobetxamendua hobetzera bideratutakoak.

Ez dira diruz lagundu daitezkeen gastutzat hartuko honako hauek: inbertsioaren ondorio diren finantza gastuak; langile gastuak; erabilitako ekipoak eskuratzeko egindako inbertsioak; makina autopropulsatuetan egindako inbertsioak; salgai eta bidaiarien garraiorako ibilgailuak, bizikletak edo garraibideak; ekipoak eta instalazioak berritzea, erabilera edo jardueraren aldaketa baten ondorioz; zerbitzariak, inprimagailuak eta, oro har, bulegotikako osagaiak; eta, azterlan edo auditoriak.

7. Dirulaguntzen zenbatekoa eta mugak

Deialdi honen betekizunak betetzen dituzten eskaerak gehienez ere diruz lagundu daitezkeen kostuen kopurua jasoko dute, edo 20.000 euro, kostua handiagoa balitz. Dena den, dirulaguntza zehazteko beste erakunde batzuek emandako dirulaguntzen kopurua kenduko da.

Diruz lagundu daitezkeen jarduera guztien kostuek aurrekontuaren zuzkidura gaindituko balute, dirulaguntza guztien zenbatekoa hainbana murriztuko da, dirulaguntza guztien zenbatekoak aurrekontu zuzkidura ez gainditzeko.

8. Aurkeztu beharreko agiriak

Deialdi honetako laguntzetan interesa duten kontzejuek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte Asparreneko Udaleko erregistroan:

- Laguntzen eskabidea, kontzejuaren errejidoreak sinatuta.
- Jarduera azaltzen duen txosten teknikoa.
- Aurrekontu zehatza.

9. Ebazpena

Laguntzen eskabideak Asparreneko Tokiko Gobernu Batzarrak ebatziko ditu eta kontzeju interesdunari jakinaraziko dio.

10. Laguntzak ordaintzea eta justifikatzea

Onartutako dirulaguntzak ordainduko dira obra ziurtapena eta/edo ordainagiria aurkeztean, onartutako dirulaguntzaren zenbateko osoarena. Zatikako ordainketak egin ahal izango dira onartutako dirulaguntzaren zenbateko txikiagoko ordainagiriak aurkezten badira, eta zati proportzionalean ordainduko dira.

11. Bateriaezintasunak

Ezingo dute dirulaguntzarik jaso Asparreneko Udalak kontzejuekin egindako lankidetzaren hitzarmenaren bidez diruz lagundu diren jarduerak.

Araia, 2018ko azaroaren 7a

Alkatea

CONSUELO AUZMENDI JIMENEZ